

Katarsia, zu

Eskuaz estali dut ilargia, gaur ez dut testigurik nahi... Ezin aproposago suertatu zaizkit Anariren hitzak, eskerrak eman gaueko ordu txikitan nekaezin jarraitzen duen disko zaharrari.

Aspaldiko partez, niretzat, eta bakarrik niretzat, gorde dut gaua. Ohe gainean dihardut, horma zuriaren kontra, ilargiak eta farolek kale kantoitik helarazten dizkidaten argiekin dantzan, Voll-Damm botila freskoari musuka eta buzoitik hartu berri dudan zure gutunari so. Irekita dago. Irekita heldu da berriro.

Agian zuk be gaua zuretzat bakarrik gordetzea erabaki duzu, agian ilargi berdinari begira gaude, agian gaur barroteen itzalek ez dute zeure aurpegia marratuko, agian begiak ixtean ikusiko nauzu eta inoiz ez bezala besarkatuko nauzu. Agian kilometroek lapurtutako denbora berreskuratuko dugu gau honetan.

Barrenek eztanda egin didate zure irudia gogoratzean. Hain zeunden distiratsu goiz hartan.. izara zuriek zure gorputzaren geometria definitzen zuten 180x90eko koltxoi zaratatsu horretan. Hanketatik gora irristaka, nire gorputzeko txokorik ezkutuen miatu zuten zure ezpainen, neureak topatu zituzten arte. Irribarre inozoz musukatu ninduzun nire altzoan zinela, eskuak sorbaldatik behera jaitsiz eta gerria zeure eginez. Bularra bularraren kontra. Gozo. Epel. Lizun.

Goiz euritsu horren itxurazko freskotasunak azalean zeneraman udaberriarekin bat egin zuen.

Baina azkeneko ikusi zintudanean bortizkeria islatzen zuen zure begiradak. Betazpi grisek eta ezpain koloreek noizbait izan zenuen bizitasuna eraman zuten beren etorrerarekin. Zer duzu Ainhoa?

Orain, irakurtzen eta berrirakurtzen zaitut. Ondo zaudela diozu. Gutuna idazten irudikatzen zaitut; ikaragarri handi duzun jantziaren maukek eskuak estaltzen dizkizute. Ezkerreko eskuarekin orria ebatzen zaude eta eskubikoarekin boli urdinari bueltak ematen dizkiozu momentuan zure

errealitatea birsortzen dizuten pentsamenduekin gozaten duzun bitartean. Inoiz ez zara greba emozionalaren aldekoa izan.

Iraileko lehen haizeteek gela hartu dute. Hotzikara. Besotik zehar jarri ditut atzamarrak dantzan. Suabe, hotzikarak utzitako oilo-ipurdia mantendu nahian. Begiak itxi ditut, laztanek eragindako soinua entzun dezaket nire azalean barrena. Ohe gainean etzan eta bularretakoa kendu dut. Aske dihardut, bizkarrean kate loredun honek utzitako markak senti ditzaket, sakon, bero. Tripa igurtziz gora noa. Gora eta behera. Behera eta gora. Dena borobildu da, dena dago sobera oasi txiki honetan. Amaitu da. Malko bat irristaka nabaritu dut aurpegian, sudurra gainditu du eta puntan geratu da. Plok.

Hamaika sentsazio, usain, kolore eta temperatura oparitzen dizkigu gorputzak. Gustuko ditugun horiek bilatzean eta nahi ez ditugunak baztertzean dago erronka, honek burujabe egingo gaituelarik.

Ekainak 9 ditu gaur. Bi urte igaro dira espetxeratu zintuztenetik, bi urte errepidea bidelagun dugunetik, bi urte erein zenuen ausardia eta duintasuna zigortu zutenetik. Kafe hutsari azken zurrupada eman eta behera noa, Mikel eta zure ama ditut zain. Ohiturak nolabaiteko lasaitasun egoera batera eramán gaitu, pozik gaude, berritsu. Kotxean sartu gara, irratiak egun eguzkitsua izango dugula iragarri digu.

Aitak zugatik galdetu duela komentatu du zure amak eta isiltasuna gailendu da. Ezin izan dut bolantea estutzea ekidin. Sei urteren ostean zure izena esateko atrebentzia izango zuen? Edo *zelan dago* hotz bat botako zuen? Ez dut jakin nahi.

Hirugarren ordua errepidean, laster helduko gara. Leihatilaren zirrikitutik sartzen den haizeak eragiten duen zarataz gogaituta, itxi egin dut. Geure

kaltetarako, *legea desafiatzen* dutenen kontrako juizio moralak egiten dabilen sasi-kazetariaren ahotsa (eta zakila esango nuke baita) nagusitu da. Europaz dabil, *bere Europaz, bere* horren baitan Europa zuria, heterosexuala ulertzen dut nik, pertsonak ilegalak direla agintzen digun Europa, kapitalaren Europa, gizonen Europa, lotsaren Europa. Amatatzea onena.

Sarreran gaude jada. Kanpotik senti zaitzaket, uniforme, begirada, hitz eta esku arrotz horietatik at. Mikel, zu aurkitu nahian, kokorikoz jarrita patioko leihoei begira geratu da eta zure ama ondo heldu garela jakinarazteko dei egin dio norbaiti. Besarkatuta sartu gara, harro, egun berezia da gaurkoa.

Maite zaitugu Ainhoa.

Maite zaituztegu.